

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
GRADU BUKAERAKO LANA	141229	2024-2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
LEHEN HEZKUNTZA	5	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	8	EUSKARA / GAZTELANIA / INGELESA
Arduraduna		
Olalla Juaristi Larrinaga		

Justifikazioa

Graduko ikasketen amaieran Gradu Bukaerako Lana egin beharko da. Lan hori ikasketa planen azken aldian egingo da eta titulazioan hartutako prestakuntzarekin bat datozen ezagutza, trebetasun eta jarrerai lotutako gai bat sakontzera bideratu beharko da, oinarriko prestakuntzaren esparruan, arloetako didaktiketan edo aipamen jakin batean.

Gradu Bukaerako lana proiektu, txosten edo azterlan originala da eta idatzizko formatuan entregatu beharko du ikasleak. Horrez gainera, lanaren ahozko defentsa egin beharko du epaimahai baten aurrean. Modu horretan erakutsiko ditu lanari lotutako konpetentziak.

Gradu Bukaerako Lanak, beste edozein ikasgai moduan, konpetentzia batzuk ditu esleituta. Konpetentzia horiek graduan zehar landu eta eskuratu ditu ikasleak, eta graduaren amaierako ikasgai honetan erakutsi beharko ditu.

Aurrebaldintzak

Gradu Bukaerako Lana defendatu eta ebaluatu ahal izateko, Practicum I gaindituta izan beharko da, eta Lehen Hezkuntzako Graduaren nahitaezko ikasgai guztiak gaindituta izan beharko dira edo haietan aldi berean matrikulatuta egon beharko da, BAMEko matrikulazio egutegian ezarritako epe orokorrean.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

1. G.O. SEN ETIKOA: Norberaren edo besteen on moralera positiboki makurtzea (hau da, ongia den edo esan nahi duen guztira, zentzuzko bizipena den guztira, pertsonaren errealizazioa dakarren guztira, justizia den edo esan nahi duen guztira) eta on moral horretan irautea.

- **2. menderatze maila:** Balio etikoak eta sentiberatasun moralak identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.

2. G.O. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko.

- **3. menderatze maila:** Entzuleak erraz limurtzea eta atxikitzea, mezua eta bitartekoak egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz.

3. G.O. IDATZIKO KOMUNIKAZIOA: Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.

- **2. menderatze maila:** Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

Berariazko gaitasunak

1. B.G. Modu garbi eta zuzenean komunikatzea, irakaskuntzaren hizkuntzaz, ahoz eta idatziz, irakaskuntza-lanbidearekin zerikusia duten testuinguruetan, bai mintzakide espezializatuak eta bai espezializatu gabekoei.

- Elkarriketa-estrategiak modu egokian erabiltzea ikasgelan, ikaskuntza konpartitua gidatzeko.
- Azalpena planifikatzea ikasleen ulermen mailak kontuan hartuz, eta hizkuntzen ikaskuntza-egoerei heltzea kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan.

2. B.G. Norberaren garapen profesionalaren protagonista izatea, oinarrizko prestakuntzan zehar jasotako ezagutzak integratuz eta erlazionatuz, eta aukeratutako ezagutza arloan sakondu eta ekarpenak eginez.

3. B.G. GB Lan egiten diren diseinu, ikasketa eta oinarrizko planteamenduetan familia, gizarte eragileak eta ikastetxearen testuingurua kontuan hartu dira, elementu desberdinen bidez.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudatoki si' Helburuen presentzia ikasgaiari

Garapen iraunkorrerako printzipio eta jarduerak txertatzea hezkuntzako eta ikaskuntzako arlo guztietan ezinbestekoa da gizarte iraunkor eta bidezkoagoa egiteko. Ildo horretatik Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari dagokionez, hezitzaileak aldaketarako eragile ahaltsoak dira, eta GI Heterako hezkuntza-erantzuna eman dezakete. Irakasleen prestakuntzako graduaren azken ikasturtean egiten den gradu amaierako proiektua lan egokia da ekologia integralari buruzko eta kalitatezko hezkuntzari buruzko hausnarketa egiteko, GB Lan garatzen den gaia eta lan mota edozein izanik ere.

Edukiak

Gradu Bukaerako Lanaren gaia Lehen Hezkuntzako graduarekin lotuta egon behar da, eta graduan zehar landutako ezagutzetan sakontzeko aukera emango dio ikasleari. Gaia edozein izanda ere, lan mota desberdinak egin daitezke: lan bibliografikoak, ikerlanak, azterlanak zein diseinu lanak. Lan guztiek izango dituzte oinarrizko atal batzuk: sarrera, oinarri teorikoak, metodologia

I. LAN BIBLIOGRAFIKOAK

Lan mota honek Lehen Hezkuntzako graduarekin lotutako gai edo arlo baten inguruan dagoen informazioa batu, eta sintesi hausnartua egitea eskatzen du. Lan honen garapenean gai bat sakontasunez landuko da, azterketa bibliografikoa eginez, ikuspegi desberdinak aurkeztuz, azterketa kritikoa eginez edo aldeko eta aurkako ikuspegiak aztertuz, besteak beste.

II. AZTERLANA

Azterlan asko kasu azterketan oinarritzen dira, hau da, irakaskuntza zereginekin loturiko esperientzietan: metodologiak, ikastetxeko hezkuntza proiektuak, Ikastetxeko curriculumak, metodologiak, umeen garapena. Baina material didaktikoen azterketa kritikoa ere izan daiteke lan honen abiapuntua.

III. IKERLANA

Ikerlana egiteko ezinbestekoa da ikerketa proiektua diseinatzea, edota diseinatzeaz gainera, burutu ere egin daiteke proiektu hori. Ikerlanak honako zeregin hauek eskatzen ditu: galdera edo hipotesiak planteatu, oinarri teorikoak ezarri, datu bilketa sistematikoa diseinatu edota egin, ondorioak batu, hasierako hipotesi edo balizko emaitzak egiaztatu, besteak beste.

IV. SORKUNTZA ETA DISEINU LANA

Irakaskuntza praktikan ezinbesteko diren baliabideen diseinua honako esparru hauetan kokatu daiteke: Curriculumaren planifikazioa, metodologiaren aukeraketa eta aplikazioa sekuentzia didaktiko edo proposamen didaktikoetan, ebaluazioaren planteamendua proposamen didaktiko desberdinetan. Arlo hauetako edozein aukeratuta eraiki daiteke lan mota hau, betiere, aurrekoetan moduan, marko teoriko bat oinarri hartuta.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Gradu Bukaerako Lanean ikasleek lan ordu asko egingo dituzte bakarrean. Hala ere, lan autonomo hori gidatua izango da, eta tutoretzak antolatuko dira horretarako. Tutoretza saioak garrantzitsuak izan daitezke prozesuaren une hauetan:

- Azken proiektuaren helburu zehatzak finkatzeko eta gaia planteatu eta mugatzeko orduan, bereziki, sakontasuna, denbora eta baliabideak zehazteko.
- Gaiaren errebisio bibliografikoa egiteko orduan, edo erabiliko diren oinarri teorikoak planteatzeko orduan.
- GBLren metodologia zehazteko.
- Emaitzen azterketa, ondorioak, ekoizpena... egin edo aurkezteko orientazioak jasotzeko unean.
- Lana idazteko unean, informazioaren antolaketari buruzko oharrak jasotzeko.
- Lanaren aurkezpena prestatzeko.

Ebaluazioa

KONPETENTZIAK	Ebaluazio edukia ¹	Ebaluazio elementuak
G.O.1. SEN ETIKOA	Edukiaren egokitasuna eta Autonomia %75	IDATZIZKO TXOSTENA AHOZKO AURKEZPENA
G.O. 2. NORBERE GARAPEN PROFESIONALAREN PROTAGONISTA IZATEA		Edukiaren egokitasuna eta ezagutza: %55 LANAREN ELABORAZIO PROZESUA Autonomia eta ekimena prozesuan zehar: %20
G.O.2. AHOZKO KOMUNIKAZIOA G.O.3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA B.G.3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA	Adierazpena %25	AHOZKO AURKEZPENA % 25 Ahozko adierazpena: - Antolaketa - Zuzentasuna

Adimen artifizialaren erabilera

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopia, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikularen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

González García, J.M.; León Mejía, A. eta Peñalba Sotorrío, M. (2014). *Cómo escribir un trabajo de fin de grado: Algunas experiencias y consejos prácticos* Madrid: Síntesis, D.L. 2014

Bartolomé et al., (2012). *El trabajo de fin de grado: guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores*. Madrid: Mc Graw Hill, D.L.

León, Orfelio G. (2016). *Cómo redactar textos científicos y seguir las normas APA 6ª. (Para los trabajos de fin de Grado, de fin de Máster, tesis doctorales y artículos)*. Madrid: Ibagarceta publicaciones.

Sánchez et al., (2016). *Trabajos de fin de grado y de postgrado: guía práctica para su elaboración*, Archidona (Málaga): Ed. Aljibe

¹ Gradu Bukerako Lana gaitzeko ebaluazio eduki guztiak gaituta izan behar dira:

- Edukiaren egokitasuna eta Autonomiaren %35
- Adierazpena %15